

# zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

L.G.: 55-0197/03



[www.zizurkil.com](http://www.zizurkil.com)

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

## Zizurkilgo Jaiak 2011

Zizurkilgo Euskara biziberritze plana 2009-2012

septiembre 2011 | 94. zenbakia | UDAZKENA



**ARANTZAZUKO AMAREN JAIK:** Irailak 7-8-9-10 eta 11.

**MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA 2011**  
"Eraginkortasunez mugitu zaitez:hobetu zure mugikortasuna"

Bi ibilbide

**BIGARREN ESKUKO AZOKA**

**2011-09-24 Villabonako Berdura Plazan 10:00etatik 13:30era.**

Bizikletak eta mugikortasunarekin zer ikusia duten materialak Udaletxea eta Udal Bulegoetan bilduko dira (irailaren 5etik 21era, 9:00etatik 14:00etara). Orduetegi horretan materiala eraman ezin duen orok bi telefono hauetara hots egin dezake: 943691012 edo 943693066. Jabe bakoitzak salgai jartzen duen materialaren prezioa jarri beharko du. Jabeek ez dute postuetan egon beharko.

**BIZIKLETA MARTXA:** Asteasu- Anoeta- Ikaztegieta.

Tolosaldeko bidegorriak ezagutzeko aukera paregabea.

10:00etan: Asteasuko plazatik irteera. Hortik Zizurkil, Villabona, Irura gurutzatu eta Anoetara.

10:00etan: Ikaztegieta plazatik irteera. Hortik Alegi eta Tolosa gurutzatu eta Anoetara.

11:30ean: Anoetako plazan hamaiketako.

12:00etan itzulera.



**KULTURA IKASTAROAK:**

Ikasturtea urriko lehenengo astean hasiko da eta ekainaren erdi arte iraungo du.

Matrikula epea: irailaren 1etik 23 arte.

Izen emateak Zizurkilgo Aurrera Plazako Udal Bulegoetan, 943-692495 telefonoa. Izen emateko momentuan ikastaroaren ordainketa egin beharko da edo Udaleko kontu korrontean ordainketa egin izanaren ziurtagiria ekarri beharko da, eta izen emate orria betetzea derrigorrezkoa. Ikastaroetako bajak urriaren 21a baino lehenago soilik onartuko dira eta idatziz eskatu beharko dira.

**ZIZURKILGO ATXULONDO KULTUR ETXEA**

HAURRENTZAT EKINTZAK:

**ANTZERKIA:** Ostiraletan 17:30etik 18:30era. Prezioa: 40 euro.

**EUSKAL DANTZA:** Asteazkenetan 17:15etik 19:15era, adinaren arabera bi taldetan banaturik. Prezioa: 60 euro.

HELDUENTZAKO EKINTZAK:

**ESKULANAK ETA PINTURA:** Asteartetan 18:00etatik 20:00etara. Prezioa: 70 euro.

**PATCHWORK:** Asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara. Prezioa: 70 euro.

**YOGA:** Astelehen eta asteazkenetan 18:30etik 20:00etara. Prezioa: 105 euro.

**PILATES:** Astearte eta ostegunetan 18:30etik 19:30era. Prezioa: 125 euro.

JUBILATUENTZAT EKINTZAK: Izen emate eta prezioak ELIZPE JUBILATU ELKARTEAN.

**GIMNASIA:** Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 11:00etara.

**JOSKINTZA ETA ESKULANAK:** Ostegunetan 16:00etatik 18:00etara.

**YOGA:** Astearte eta ostegunetan 11:00etatik 12:30etara.

**ZIZURKILGO IRIARTE KULTUR ETXEA**

HELDUENTZAKO EKINTZAK:

**ESKULANAK:** Ostiraletan 15:00etatik 17:00etara. Prezioa: 70 euro.

**HELDUEI ZUZENDURIKO GIMNASIA:** Zure gorputza manten ezazu gimnasia erraz eta samurra eginez.

Astelehen eta asteazken 11:15ean. Prezioak: jubilatua 75 euro/ jubilatua ez direnak 105 euro.

**IKASTARO MOTZAK**

**AZALAREN ZAINTZA UDA ONDOREN:**

**Astelehenetan, urriaren 17an hasita azaroaren 24a arte, 19'00etatik 21'00etara. Prezioa: 40 euro.**

Zure azala ezagutu eta bere beharrak identifika itzazu | Zure azala tratatzen ikas ezazu.

Eguzkitik babesteko kremak: kosmetiko eraginkorrena | Kosmetikaren oinarriak: antioxidanteak, kolagenoa, elastina, ...

Kosmetika eta zure azalaren zaintza egokiena uda ondorenean | Zein da makilai egokiena niretzat? Makilaia 2011ko udazkenean.

**SABEL DANTZA:** Astelehenetan 19:00etatik 20:30era, urriaren 18tik abenduaren 20a arte. Prezioa: 50 euro.

**LOATZO MUSIKA ESKOLA 943-691857 telefonoa.**

**EUSKARA IKASTAROAK:**

Zizurkil eta Villabonako Udalek antolatuz, herrian bertan euskara ikasteko taldeak sortuko dira. Izen emateak: irailaren 5etik 30era Zizurkilgo Udal Bulegoetan **943-692495**

**ALFABETATZE IKASTAROA:**

Iriarte Etxean eskainiko da asteazkenetan 19:00etatik 20:30era. Prezioa: 70 euro.

**BESTELAKOAK:**

**DANENA FUTBOL ESKOLA:**

2011-09-02: Elbarren Futbol Zelaian Futbol Eskolaren lehenengo bilkura 17:30ean Alebinak (2000-2001) eta Benjaminak (2002 eta 2003).

Izena eman dutenak eta futbolearen aritu nahi duten guztiak etorri daitezke. Plaza mugatuak finkatu dira etorkizunean aukeraketarik egin gabe jokalariek jarraipena izan dezaten. ANIMA ZAITEZ!



Apunta zaitez!!!